

NOLA ERABILI

11. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan hiru atal nagusi bereizi ditugu.

DENBORA

03:31

*NOIZ
NOIZTIK, NOIZDANIK
NOIZKO
NOIZKOA
NOIZ ARTE*

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

NOIZ ARTE atalarekin MAIZTASUNA atal nagusian jarraitzeko diren atal dramatiko txikiak hasten dira. Protagonistetako batek, Nereak, Londresera, ingelesa ikasteko, egingo duen bidaiari buruzkoak dira. Horregatik, gida didaktiko osoa klasean landu arte, bideoa martxan ez jartzea proposatzen dugu.

MAIZTASUNA

09:43

*-tik, -ra
-ero, -tan*

Esapideak: behin ere ez, noizbehinka ...

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

*Gaur goizean, Gaur gauean ...
Hilabete barru, duela, aspaldi ...*

13:40

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

11. GELTOKIA

DENBORA

Euskaraz, denbora adierazteko, lekua adierazteko erabiltzen diren deklinabide-kasu berberak erabiltzen dira.

NON - NONDIK - NORA - NORAINO - NONGO - NORAKO

Galdetzaileak, ordea, erabat aldatzen dira. Honako hauek erabiltzen dira:

NOIZ? - NOIZTIK? - NOIZKO? - NOIZ ARTE?

NOIZ

Noiz? Galderari, adberbio baten bitartez, edo, NON kasuan deklinatutako izen-sintagma baten bitartez, erantzun dakioko.

- Noiz doa Boli-kostara?
- Igandean.
- Bihar.

Batzuetan, iraupen mugagabea edo ez-zehatza adierazteko, ZEREZ kasua erabiltzen da.

Mirenek gauetz ikasten du. Edozein egunetan.
Mirenek gauean ikasi du. Bart ikasi du.

NOIZTIK - NOIZDANIK

Forma biak baliokideak dira eta biei NONDIK kasuaren bitartez erantzuten zaie.

- Noiztik zaude hemen?
- Atzotik.
- Noizdanik zaude hemen?
- Atzodanik.

Baina, ezin ditugu biak erabili kasu guztietan. Horrela bada, salbuespenak salbuespen, izenekin *-tik* kasu-atzizkia erabiliko dugu: *igandetik*, *joan den astetik*, *iaztik aurrera* eta horrelakoetan; eta *-danik* atzizkia adberbio batzuentzat utziko dugu.

NOIZKO

Noizko formak bi adiera izan ditzake.

- Etxea noizko?
- Astearterako. (*aditz laguna*)

Etxea noizko? galderak adizlaguna eskatzen du erantzuna osatzeko; eta, etxea noiz izango den gurea, galdetzen digu.

- Noizkoa da etxea?
- Iazkoa. (*izen laguna*)

Noizkoa da etxea? galderak izen laguna eskatzen du erantzuna osatzeko; eta, etxearen ezaugarri batez, galdetzen digu

NOIZKoa

Noizkoa galderari NONGO kasuaren bitartez erantzuten zaio, eskuarki, bai izenen kasuan, bai adberbioenean.

NOIZKO?

NOIZKO? galderari erantzuteko NORAKO edo NONGO kasu-markak erabiltzen dira. Adberbioek *-ko* marka hartzen dute eta izenek *-rako*.

Nerea eta Oihane.

- NEREA** Aizu, Oihane, etxe bat erosi duzu, ezta?
OIHANE Bai, azkenean, erosi dut.
NEREA Pozten naiz, eta... giltzak noizko?
OIHANE Bada, gutxi gorabehera abuzturako; agian, irailerako.

Nerea eta Oihane telefonoz.

- NEREA** Aizu, Oihane, Azpeitira joan behar dut. Utziko al didazu autoa?
OIHANE Noizko behar duzu?
NEREA Arratsaldeko lauretarako.
OIHANE Ongi da.

Nerea eta Oihane telefonoz.

- NEREA** Aizu, Oihane, Azpeitiara joan behar dut. Utziko al didazu autoa?
OIHANE Noizko behar duzu?
NEREA Biharko.
OIHANE Ongi da.

Oihane eta Nerea egunkariz inguratuta, egunkarietan zerbait bilatzen.

- NEREA** Hemen ez dator ezer ez.
OIHANE Noizkoa da egunkari hori?
NEREA Astelehenekoa. Zuk daukazuna, noizkoa da?
OIHANE.- Asteartekoa.

NOIZ ARTE

NOIZ ARTE? galderari bi modutara erantzun dakioke: izenari NORA deklinabide-kasuaren marka erantsiz eta *arte* posposizioa gehituz edo NORA kasuaren markarik gabe eta *arte* posposizioa gehituz.

- Noiz arte geldituko zara?
- Igandera arte.
- Bihar arte.

Oro har, adberbioek ez dute NORA kasuaren markarik hartzen eta *arte* posposizioarekin aski izaten dute *noiz arte?* galderari erantzuteko.

Mikel bulegoan eserita. Oihane iristen da.

- OIHANE** Kaixo, Mikel. Noiz arte egongo zara hemen?
- MIKEL** Noiz arte? Bada, hamabiak arte edo.
- OIHANE.** Eskerrak, Nereari oparia erosi behar diot?
- MIKEL** Nereari, oparia? Zer dela eta.
- OIHANE** A! Baina, ez al dakizu? Londresera doa.
- MIKEL** Londresera? Ez, ez nekien.
- OIHANE** Bada, bai, Londresera doa. Bi hilabete eta erdi egongo da han.
- MIKEL** Noiz doa?
- OIHANE** Datorren astean.
- MIKEL** Datorren astean.

Mikelek atzamarrekin kalkulatzeko du.

- MIKEL** Datorren astean, urria hasten da. Urria, azaroa eta abenduaren erdia Londresen; beraz, abenduaren **erdira arte** doa Londresera.

- Noiz arte?
- Hamabiak arte.
- Abenduaren erdira arte.

MAIZTASUNA (-tik -ra)

Mikel bulegoan eserita. Nerea dago berarekin.

NEREA Gainera, bi hilabete eta erdi bakarrik egongo naiz kanpoan.

Nerea paretan dagoen egutegi batera hurbiltzen da.

NEREA Urriaren batetik abenduaren hamabostera.

MIKEL Zer dela eta, bat-batean, Londresera joateko grina hori?

NEREA Grina? Ingelesa ikastera noa. Astelehenetik ostiralera egunero joan behar dut ikastetxera; goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte. Hamabietatik hamabiak eta erdietara ogitartekoa jateko tartetxo bat izango dugu.

Urriaren batetik abenduaren hamabostera.

Astelehenetik ostiralera.

Hamabietatik hamabiak eta erdietara.

MAIZTASUNA (-ero -tan)

Mikel bulegoan eserita. Nerea dago berarekin.

MIKEL Egunero deituko duzula esan duzu.

NEREA Bai, beno, egunero, egunero ez dakit, baina astean bitan edo hirutan bai, hori seguru.

MIKEL Hasi gara. Azkenean, mundu guztiak bezala egingo duzu: iritsi eta lehenengo astean, lautan deituko duzu. Bigarren astean, bitan. Hirugarren astean, behin bakarrik. Laugarren astean, mutil eder bat ezagutuko duzu eta ez duzu deituko.

NEREA Isil zaitez, Mikel! Baietz astero deitu, igandero!

MIKEL Ezetz!

NEREA Baietz!

MIKEL Ezetz!

-Noizero?
-Egunero.
-Igandero.
-Astero.

-Zenbatetan?
-Astean bitan edo hirutan.
-Bitan, hirutan, lautan...
-Astean behin

MAIZTASUNA (esapideak)

Orain arte azal dutako esapideez gain, badira beste hainbat baliabide maiztasuna adierazteko. Entzun ditzagun gure lagunak.

Mikel bulegoan dago Nerea eta Oihanekin.

NEREA Deituko dut, deituko dut. Lasai egon. Sekula ez zaituztet horrela ikusi.

MIKEL Jakina, inoiz ez zara joan Londresera, eta.

NEREA Hori egia da, behin ere ez naiz Londresera joan, egundo ez; eta zer? Hain arriskutsua al da Londres? Hango semaforoak hemengoak bezalakoak izango dira: gorria, gelditzeko; horia, kontuz ibiltzeko; eta, berdea, bidea zeharkatzeko, ala?

OIHANE Hori adibidea, neska! Bejondeizula! Gutxitan entzun dut nik horrelako azalpenik.

MIKEL Nereak badaki batzuetan zorrotza izaten, bai. Noizbehinka literatura ere egiten du.

NEREA Mikeltxo, nik, sarritan irakurtzen dut. Arretaz irakurri ere. Zuk, ordea, inoiz gutxitan, inoiz ez esatearren.

OIHANE Et, et, et, lagunak, lasaitu. Ez gaitezen beti bezala has, katua eta zakurra bezala. Bakea behar dugu. Nerea, hau zuretzat da.

Oihaneke opari luzatzen dio Nereari. Nereak harrিতuta hartzen du.

NEREA Baina zer da hau? Opari bat? Niretzat? Baina, zergatik?

OIHANE Londresera zoazelako, neska, eta gutaz gogoratzeko.

NEREA Baina ez zeneukaten zertan egin oparirik.

MIKEL Arrazoia dauka Nereak. Ekar ezazu opari hori. Nik erabiliko dut.

NEREA Alde hortik alproja horrek!

Sekula ez zaituztet horrela ikusi.

Inoiz ez zara joan.

Behin ere ez naiz Londresera joan.

Egundo ez.

Gutxitan entzun dut.

Noizbehinka literatura ere egiten du.

GAUR GAUEAN / GAUR GOIZEAN

Eguneko zein unetan gertatu zaigun esateko euskaraz ez da erabiltzen erakuslerik. Ez dugu esaten *goiz honetan euria egin du*. *Goiz honetan hori* erdarakada da. Guk, *gaur goizean euria egin du*, esaten dugu. Edo, *gaur arratsaldean* zinera joango naiz. Edo, *gaur gauean lagunarekin ibiliko* naiz *goxo-goxo*.

Mikel, Nerea eta Oihane auto baten atzeko aldean harrapatzen ditugu.

MIKEL Gezurra dirudi, *gaur goizean*, hemen, Euskal Herrian eta, *gaur arratsaldean*, Londresen. Marka da, gero.

OIHANE Zer, Mikel? Aurrerapenen kontra hasi behar al duzu?

NEREA Ez, mesédez, Mikel, ez hasi aurrerapenen kontra. Bart, ez dut ia batere lorik egin hegaldia dela eta; eta lasai joan nahi dut hegazkinean.

MIKEL Ez, ez, ez da nire asmoa zuri bidaia zapuztea. Gainera, *gaur egun*, hegazkinek ez daukate inolako arazorik hegan egiteko.

OIHANE Aski da, Mikel. Zoaz Nerearen gauzak hartzera eta ekarri barrura. Guk aurrera egingo dugu.

§


Herenegun goizean. Herenegun eguerdian.

Atzo arratsaldean. Atzo gauean.

Etzi gauean.

Bihar arratsaldean. Bihar eguerdian.

Gaur goizean.



Herenegun, atzo, gaur, bihar eta etzi adberbioen ordeztan, asteko egunen izenak mugagabearen erabil ditzakegu.

Larunbat goizean. Larunbat gauean.

Ostiral arratsaldean.

Asteazken gauean.

Eta eguneko unean, noiz, noizko, noiz arte eta beste denbora-kasuetan deklina dezakegu.

Larunbat goizeko bederatzietan hasiko da lehia

Bihar gauek aurrera egingo dut erregimena.

Aurtengo irabaziak urriak izan dira.

*HILABETE BARRU / HILABETEREN BURUAN
ORAIN DELA / DUELA / ASPALDI / DUELA*

Oihane eta Mikel bulegoan daude.

OIHANE Badira hogeita bost egun ez dugula ikusi Nerea. Duela aste bat deitu zidan. Harrezkeroztik ez dakigu ezer.

MIKEL Hogeita bost egun Nerea joan zela, diozu?

OIHANE Bai, beno, gaur urriaren hogeita seia da, eta Nerea hilaren batean joan zen; beraz, hogeita bost egun dira joan zela.

MIKEL Hogeita bost egun igaro dira jadanik. Alajaina, azkar pasatzen da denbora!

OIHANE Bai, mutil, bai. Atzo joan zela ematen du eta bost egun barru hilabete bat beteko du Londresen.

MIKEL Hilabete bat. Honezkero primeran jakingo du ingelesez. Orain dela aste bat deitu zizula esan duzu, ezta?

OIHANE Bai, joan den astean, astelehenean deitu zidan.

Mikelek egutegia hartzen du.

MIKEL Joan den astean, astelehenean deitu zizun. Niri ere joan den astean deitu zidan, baina asteazkenean. Bai, ongi gogoratzen dut, asteazkenetako programa ikusten ari nintzelako telebistan deitu zuenean.

OIHANE Asteazkenean deitu zizula? Ez didazu ezer esan, ez zenidan ezer esan ostegunean, ez zenidan ezer esan ostiralean eta ez didazu ezer esan gaur.

MIKEL Ahaztu egin zait, Oihane.

OIHANE Ahaztu egin zaizula? Ahaztu egin zaizula? Zurea bai gibela!

Telefonoa hoska hasten da. Mikelek hartzen du.

MIKEL Bai? Nor zara?

Nerea da Londrestik.

MIKEL Aupa, Nerea, aspaldiko. Bizi al zara?

Oihanek telefonoa kentzen dio Mikeli.

OIHANE Eman telefono hori.

How are you? English people is good? Yes or no? How mach english are you learning, baby?

Euskaraz hitz egin nahi duela, erlaxatzeko.

Oihanek Nereak dioena entzuten du azkenean, telefonoa eskegitzen du.

OIHANE Esan du, joan den astean, ostiral goizean, Tate Gallery-ra joan zirela. Egundoko museoa omen da, Klee, Kandinsky, Miró...
Datorren astean, larunbat arratsaldean, Eskoziara joango dira, Edinburgora, autobusez.

MIKEL Nik, datorren urtean, abuztuan joan nahi dut Eskoziara.

OIHANE Ni ere joango nintzateke.

MIKEL Etorri gurekin. Gorka, Asier eta ni goaz.

OIHANE Gorka?...

Oihane urduri jartzen da.

OIHANE ... eta Asier eta zu. Ez da plan txarra. Bada, pentsatuko dut.

Badira hogeita bost egun ez dugula ikusi Nerea.

Duela aste bat deitu zidan.

Bost egun barru hilabete bat beteko du Londresen.

Nik, datorren urtean, abuztuan joan nahi dut Eskoziara.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com